

# Cameron erretiratuta, Corbyn etxekoek asesinaturik... **nork gidatuko du britainiarren trantsizioa?**

Britainia Handiko politikarien eremuan eskuinetik bultzatu bazen Europar Batasunetik irteteko erreferenduma, emaitzak lehenbiziko matxura larriak ezkerrean eragin ditu. Alderdi Laboristaren kide neoliberalenek, Tony Blair eta Gordon Brownen ildoan hautatutako parlamentariak buru, estatu kolpea antolatu zioten biharamunean bertan Jeremy Corbyni, azken kongresuan botoen %60rekin irabazi zuen lider zahar bezain berriari.

Aurrez ondo prestatutako partitura joaz bezala, Corbynen itzaleko gobernuko –oposizioak horrela funtzionatzen du Londresen– kideen erdiak baino gehiagok banan bana eman zioten dimisioa, errenuntziatzeko gutun gordinak Interneten eskegiz, eta ondoren parlamentari laboristek konfiantzazko bozkaketa ezarri liderrari. Ordainetan, zientoka militante laborista mobilizatu ziren 2015eko kongresuan lidergoa alderdiko aparatuen kontra irabazi zuen Corbynen alde.

Michael Chessumek idatzi du *The New Statesman*en: “Corbynek petto bakarra egin du: estuago lotu behar zuen Alderdi Laborista. (...) Brexita geldiarazteko argudio bakarra zen austeritatea eta neoliberalismoa direla benetan ekarri dituztenak etxerik eza, soldaten jaitsiera eta zerbitzu publikoen hondatzea, ez dela etorkin errumaniarren eta bulgariarren kontua. Corbynen akats nagusia izan da hasieratik zorrotzago ez hartu izana Alderdi Laboristaren kanpainaren kontrola eskuetan, nahiz eta hori egin izan balu ere berdin aurpegiatuko zioten”.

Horiek, ordea, lurrikararen bezperako kontuak dira. Jeremy Corbyn ezin da honetatik bizirik irten, Alderdi Laboristaren zati handi bat mobilizatuta ere. Notable gehienek alde egin diote –Thomas Pikettyk berak ere bai– edo tiroka ari zaizkio kargu publikoetatik. Alderdi Laboristari haize berria ekarri dion Corby-

nek adierazi du ez dela etxera joango lanak erdi bidean utzita. Baina ziurrenik orain oso bestelakoa da bukatu beharko duen lana: Alderdi Laborismoa egoera berrira egokitzeko trantsizioa –ez bada zatiketa historiko bat– kudeatzea.

Alderdi Kontserbadoreak berea kudeatu behar duen moduan: nork negoziatuko du eskuinetik EBrekiko estatus berria? Boris Johnsonek, boto emaile kontserbadore asko Leave bozkatzera gehien berotu zituenak, uko egin dio. Batzuek diotenez, badakielako inondik ezin dituela bete kanpainan esanda-

ko promesak, ezinezkoak edo besterik gabe gezur hutsak zirelako. Besteen us-tean, operazioan kide zuen Michael Govek akabatu du hotzean, lehen ministro-tarako aurrea harturik.

Eta erreferendumaren eguna urrundu ahala, gero eta nabarmenagoa da Britainia Handiko egitura politikoetan sentitzen den hutsunea, kontrolik eza. Gero eta kezka handiagoa herritarren artean, bi alderdi nagusietako buruak botere zatien inguruko borroka taktikoetan nahastuak eta lider garbi baten usainik ez. Trantsizioa gogorra izango da. ■



# Burtsek hiru bilioi dolarreko kapitalizazioa **galdu** dute Brexit osteko bi egunetan

Historiako muturrekorik handienetako bat -bi eguneko jaitsierarik gogorrenahartu zuten munduko burtsek Britainia Handiko erreferendumaren ostean: hiru bilioi ("b" hizkiz idatzirik, bai) galdu zuten konpainia handienek beren kapitalizazioetan. Euskal Herriko inbertsiogile baten begietatik begiratuta, nor esan behar zion ingeles enbata batek burtsako astindurik handiena IBEX 35eko konpainiei eragingo zienik, %12ko galera?

Aste bete baino lehen, ordea, Londresko burtsako FTSE 100 indizeak galera guztiak berdindu zituen eta, aldiz, Europako beste gehienek galeretan segitzen zuten, Madrilek %9, Milanek %11, Paris eta Frankfutek %6... Brexitak gehiago kolpatu Londresgo oligarkia gainerako Europakoa baino?

Ingelesen erreferendumentik harago dago oztopoa, bistan denez. 2016an Londresko burtsak %2 irabazi duen bitartean, Milangoak %25 galdu du, Madrilek %15, Paris eta Frankfutekoek %10, denek galdu. Behin eta berriro 2008an hasitako krisi ekonomikoa-ri "kimu berdeak" eta "tunel amaieran

argia" iragartzen dizkioten arren, hazkundera nola berreskuratu ez dute agintariak asmatzen, bazter guztiak diru merkez asez ez bada. Europako Banku Zentralak ekonomia zaintza berezietako gaixoa bezala dauka, bere kabuz pultsua lortu ezinik, bizia artifiziaiki sostengatuta.

Britainia Handiko agintariak lotsarik gabe aitortu dute erreferendumean *Leave* garaile ateratzekotan ez zeukatela B planik prest. George Osborne ekonomia ministroak zinismoz esan duenez, dibortzioaren aldekoek pentsatu behar zuten biharamunean zer egin. Arazo da Europako beste agintariak ere larru bizirik harrapatu dituela dibortzioak.

Aldagoiaren pean, eten gabe doaz astinduak: orain Erresuma Batuen zor publikoari A hirukoitza kendu diotela, berehala libren devaluazioari esker hango esportazioak handitzen ari direla, kontuz, agentzia batek Europar Batasunaren zorra ere jaitsi egin duela sailkapenean, hauteskundeak direla hemen edo han... Berri onik ez globalizazioarekin gizenduta larrialdian dagoen Europa gaixoarentzako. ■



## MAITE PAPER-DENDA

Geltoki kalea, 6 - 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943372791

 **Joxem** fundazioa  
**Zumalabe**

Ametzagaina Kalea 19  
20012 Donostia

Tel.: (+34) 686 72 88 43  
(+34) 652 731 304

harremanak@joxemizumalabe.eus

